



Donostiako Aste Nagusia

Hizkuntza erabileraren neurketa

AURKIBIDEA

1. SARRERA
2. METODOLOGIA
3. BEHAKETAREN EMAITZA
 - 3.1. Dktik ANTOLATUTAKOAK
 - 3.1.1. Idatzizko materialaren azterketa
 - 3.1.1.1. Egitarauak
 - 3.1.1.1.1. Dosierra
 - 3.1.1.1.2. Programazio liburuxka
 - 3.1.1.1.3. Su artifizialen prentsa dosierra
 - 3.1.1.1.4. Bozka txartela
 - 3.1.1.1.5. Esku egitarauak
 - 3.1.1.1.5.1 Aste Nagusiko egitaraua
 - 3.1.1.1.5.2 Su Artifizialen egitaraua
 - 3.1.1.1.5.3 Aste Erraldoiaren egitaraua
 - 3.1.1.1.5.4 Antzerkia
 - 3.1.1.1.5.5 Folklorea
 - 3.1.1.1.5.6 Bandak
 - 3.1.1.1.5.7 Arrantza txapelketa
 - 3.1.1.2. Kartelak
 - 3.1.1.2.1. Orokorra
 - 3.1.1.2.2. Su artifizialak
 - 3.1.1.2.3. Faroletakoak
 - 3.1.1.2.4. Bestelakoak
 - 3.1.1.3. Web gunea
 - 3.1.1.4. Prentsa oharak, publizitatea,...
 - 3.1.2. Ahozko erabileraren azterketa
 - 3.1.2.1. Prentsaurrekoak
 - 3.1.2.2. Bulegoko harrera
 - 3.1.2.3. Ekitaldien aurkezpen eta ekintzak
 - 3.2. BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK
 - 3.2.1. Ahozko erabileraren azterketa
4. EKITALDI MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA
 - 4.1. HAURRAK
 - 4.2. MUSIKA
 - 4.3. KIROLAK
 - 4.4. FOLKLOREA
 - 4.5. SU ARTIFIZIALAK
 - 4.6. ANTZERKIA
 - 4.7. BESTEAK
5. ONDORIOAK ETA BALORAZIOA
 - 5.1. Dktik ANTOLATUTAKOAK
 - 5.1.1. Idatzizko materialaren azterketa
 - 5.1.2. Ahozko erabileraren azterketa
 - 5.2. BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK
 - 5.2.1. Ahozko erabileraren azterketa
 - 5.3. ORO HAR

1. SARRERA

Azken hemeretzi urteetan, BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek Donostiako Aste Nagusiko hizkuntza tratamendua aztertu du. Azterketa horrek euskararen erabilera areagotzea du ardatz, euskararen erabilera eta normalizazioa sustatzeko bidezkoa iruditzen baitzaigu, uneoro euskararen erabilera eta egoera ezagutzea.

Behaketaren zergatia

Euskararen normalkuntza prozesuan, ezinbestekoa da ekintza instituzionala eta Donostiako gizarte osoaren parte hartzea bultzatzea; abiapuntu honetatik, BAGERA Donostiako Euskaltzaleen Elkartek Donostiako Aste Nagusian euskararen erabilera zein egoeratan aurkitzen den jakin nahi du, bai instituzioen aldetik, Donostia Kulturaren aldetik, alegia, eta bai gizartearen aldetik.

Garrantzitsua iruditzen zaigu eguneroko bizitzan euskararen presentzia bermatzea. Aldi berean, jai giroan ere, ezinbestekoa iruditzen zaigu euskararen erabilera suspertzea, euskal kulturarekin batera.

Euskararen erabileraren neurketa egiteko orduan, kontuan hartu behar dugu Donostiaren egoera turistikoa udan zehar. Abuztuan zehazki, Donostiatik kanpoko jende ugari etortzen da. Hori dela eta, egitarauaren aniztasuna beharrezkoa ikusten dugun bezala, argi ikusten dugu euskarari merezi duen tokia eman behar zaiola, hots, gutxienez gazteleraren pareko presentzia izan behar duela eta hizkuntza gutxitua den heinean lehentasunezko trataera behar du.

Euskara, gaztelerarekin batera, hizkuntza ofiziala da Donostian eta Aste Nagusia antolatzekeo garaian, donostiarren hizkuntza eskubideak kontuan hartu behar dira. Donostia Kulturaren eta erakunde pribatuen euskararen erabilerarik handiena lortzea donostiarren onurarako da.

Donostiako Aste Nagusian, euskara mugarik gabe erabilia izatea errealitate bihur daitekeen ametsa da eta, horretarako, ezinbestekoa da gizarte sektore guztien partaidetza eta inplikazioa lortzea .

Azken finean, hizkuntza funtzionamenduaren aldaketak mailakatua eta naturala izan behar du, eta sektore guztietan gauzatu behar da, baita aisialdian ere.

2. METODOLOGIA

Donostiako Aste Nagusiko euskararen erabileraren neurketa aurrera eraman ahal izateko, honako pausoak eman ditugu:

Urtero egiten dugun bezala, Donostia Kulturako Jaietako arduradunekin harremanetan jarri gara aurtengo egitarauaren nondik norakoen berri jasotzeko eta hobetu beharreko arloetan gure laguntza eskaintzeko.

Ondoren, behatzaile taldea osatu eta beraiekin harremanetan jarri gara. Aurten 25 behatzaile inguru izan ditugu eta beraiekin egindako bileran, behaketa nola egin behar zuten azaldu zaie.

Behatzaile taldeak jasotako zehaztasunak honakoak izan dira:

Jarduera: Su artifizialak/ kontzertuak/ tailerrak/...

Eguna: Jarduera egin den egunaren data

Ordua: Jarduera egin den ordua

Lekua: Jarduera garatu den tokia

Ahozkoak: (Ahal dela portzentajeak erabiliz)

Aurkezpenak: aurkezpenik izan bada, hizkuntza bakoitzean erabili den portzentajea aipatu (adibidez: %75 euskaraz, %25 gazteleraz).

Jarduera: ekintzaren garapenean hizkuntzarik erabili bada, erabili den hizkuntza adierazi behar da.

Bozgorailua: Bozgorailuz zerbait esan bada, zein hizkuntzan izan den adierazi.

Idatzizkoak: (Ahal dela portzentajeak erabiliz).

Kartela: Kartelik badago, adierazi zein hizkuntzatan dagoen idatzita.

Bi orrikoak / esku egitarauak: mota horretako euskarririk balego, adierazi zein hizkuntzatan dauden idatzita.

Publizitatea: publizitate euskarririk balego, adierazi iragarleak zein hizkuntza erabili duen.

Bestelakoak: beste euskarri motarik balego, adierazi zein motatakoa den eta zein hizkuntza erabili den.

Oharrak: aurrekoez gain, beste ezer izanez gero, azalpenak adierazteko tartea.

Behaketa egiteko, ahal izan diren ekitaldi gehienak neurtu dira, baita idatzizko materiala ere.

3. BEHAKETAREN EMAITZA

3.1. DONOSTIA KULTURAtik ANTOLATUTAKOAK

3.1.1. Idatzizko materialaren azterketa

3.1.1.1. Egitarauak

3.1.1.1.1. Dosierra

163 orrialdeko dosierra da aurtengoa, bi hizkuntzatan idatzita dago, lehenik euskaraz eta ondoren gazteleraz (euskarak lehentasuna izanik, tamaina eta letra lodiagoz). Urteetan aipatutako akats asko zuzendu egin dira. Hala ere, zenbait testuetan gaztelerazko bertsiotik hitzez hitzezko itzulpena egiten dela nabaria da. Hala nola, euskaldunak ez diren taldeen deskribapenetan. Bestetik, "Goazen kanoikadara!!" atalean abuztuaren 31 kalea gazteleraz dago euskarazko testuan (*31 de agosto*). Hala ere, aipatu bezala aurreko urteetako dossierrarekin alderatuta aurrerapauso handia eman da.

3.1.1.1.2. Programazio liburuxka

Azalean aurtengo Aste Nagusiko kartela ageri da, lelo nagusia "Aste Nagusia" lehenengo euskaraz (hizki handiagoz) eta ondoren gazteleraz (hizki txikiagoan) idatzita dago. Aste Nagusiaren leloaren azpian data azaltzen da (*Abuztua 10-17 Agosto*) laranja eta *Semana grande* azpian *Donostia / San Sebastian*.

Kontrazalean, berriz, Amstelen iragarkia ageri da. Leloa euskaraz (*Amstel Extra, izaeraz gainezka*), lataren irudian azaltzen den testua gazteleraz (*Nueva amstel extra, 14% más*) eta behealdean, ele bitan kontsumo arduratsuaren oharra (*Amstel kontsumo arduratsuaren alde %5 Alk.-Bol / Amstel recomienda el consumo responsable. Alc 5% vol.*).

Bigarren orrialdean babesleen eta laguntzaileen logotipoak azaltzen dira, bi hizkuntzatan aurkeztuta daude eta iragarki etxeek ez dute lelorik erabili. Hirugarren orrialdean, Juan Karlos Izagirre alkateak sinatutako agurra ageri da ele bitan (lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz).

Jarraian egitaraua egunez egun azaltzen da, ezkerrean gazteleraz eta eskuinean euskaraz. Euskarazko testuak euskara txukunean idatzita daude.

Aste Nagusiko jarduera guztiak liburuxkaren erdian dagoen taula batean laburbiltzen dira. Jarduera eta kaleen izen gehienak euskaraz idatziak daude. Taularen atzean, astean zehar izango diren beste ekintzen azalpenak eta Su artifizialen kartela daude; Beste jardueren kasuan, Helduentzako eta haurrentzako barrakak, karanbola Billar Libreko Open Txapelketa, ITF Ondarreta RCTSS 2013 Nazioarteko I. Tennis Open Senior txapelketa, Aste Nagusiko IX. Ayestaran bitxidenda padel lehiaketa, Donostiako Bidarren Mendaurrena poker txapelketa, Aste Nagusiko V. Jauzi lehiaketa, Zurriola Kultura Irekia eta antzerkiari buruzko informazioa euskaraz eta erakusketen informazioa gazteleraz.

3.1.1.1.3. Su artifizialen prentsa dosierra

Azalean eta kontrazalean, kartel ofiziala ageri da ele bitan; "Su Artifizialen 50. Nazioarteko Lehiaketa" jartzen du lehenengo (txuriz), eta "50 Concurso Internacional de

Fuegos Artificiales” azpian (urdinez). Jarraian, data eta hiriaren izena bi hizkuntzatan irakur daitezke (Abuztua 11-18 Agosto. Donostia/San Sebastian). Kartelaren azpian, prentsa dossierraren izenburua, lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz hizki tamaina txikiagoan dago.

Hurrengo orrietan aurkibidea, Su artifizialen mende erdiaren inguruko azalpena, kartel lehiaketaren irabazlearen informazioa, egitaraua, piroteknien informazioa, Aste Nagusiaren amaiera, sariak, epaimahaien berri eta segurtasun neurrien dekalogoak agertzen dira. Testuak txukun idatziak daude eta aurreko urteetako akatsak zuzendu egin dira.

3.1.1.1.4. Botazio-txartelak

Bi motatako botazio-txartelak kaleratu zituzten Donostiako Su Festaren Nazioarteko 50. Lehiaketan parte hartzeko. Bata, mugikorraren bidez bozkatzeko azalpenak emanaz, alde batetik euskaraz eta bestetik gazteleraz. Bestea, botazio-txartelen bidez. Esku orriaren alde batean, txartela betetzeko azalpena dago, euskaraz lehenik eta gazteleraz ondoren; orriaren beste aldean, bakoitzaren datu pertsonalak idazteko testua ere ele bitan dago (euskaraz eta ondoren gazteleraz).

3.1.1.1.5. Esku egitarauak

3.1.1.1.5.1. Aste Nagusiko egitaraua

Azalean aurtengo Aste Nagusiko kartela ageri da. Kontrazalean, Casino Kursaalaren iragarkia, hizki handiagoan eta nabarmen euskaraz “*Aste Nagusian Donostian ostatu hartzeak Kasinoko ateak irekitzen dizkizu*” eta ondoren letra txikiagoan hiru eletan (gasteleraz, frantsesez eta ingelesez). Jarraian oharrak (euskaraz, gazteleraz, frantsesez eta ingelesez). Esku orriaren barruan, Aste Nagusiko jarduera guztiak taula batean laburbiltzen dira, jarduera eta leku izen gehienak euskaraz idatzita daude. Azkenik, Programazio liburuxkan aipatu bezala, astean zehar eta egunean zehar emango diren zenbait ekintza azaltzen dira: Helduentzako eta haurrentzako barrakak, karanbola Billar Libreko Open Txapelketa, ITF Ondarreta RCTSS 2013 Nazioarteko I. Tennis Open Senior txapelketa, Aste Nagusiko IX. Ayestaran bitxidenda padel lehiaketa, Donostiako Bidarren Mendaurrena poker txapelketa, Aste Nagusiko V. Jauzi lehiaketa, Zurriola Kultura Irekia eta antzerkiari buruzko informazioa euskaraz eta erakusketen informazioa gazteleraz.

3.1.1.1.5.2. Aste Erraldoi eta buruhandien esku orria

Azalean Aste Nagusiko kartela ageri da “Aste Erraldoia/Semana Gigante” leloarekin (euskaraz lehenengo eta hizki lodiagoan). Kontrazalean erraldoi eta buruhandien informazioa dakar bi hizkuntzatan (euskaraz lehenengo -hizki lodiz- eta gazteleraz ondoren). Esku orriaren barruan egunez egun izango diren ibilbideei buruzko zehaztapenak ele bitan daude (ezkerrean gazteleraz eta datak urdinez, eskuinean euskaraz eta datak laranjan).

3.1.1.1.5.3. Antzerkia

Azalean Aste Nagusiko kartela ageri da “Antzerkia/Teatro Gipuzkoa plazan/Plaza de Gipuzkoa” leloarekin (euskaraz hizki lodiz). Kontrazalean, azalean ageri den leloa errepikatzen da. Esku orriaren barruan, ikuskizunen informazioa dago. Ezkerrean gazteleraz (izenburuak urdinez) eta eskuinean euskaraz (izenburuak arrosaz).

3.1.1.1.5.4. Dantza taldeak

6 esku orri kaleratu dituzte egun bakoitzean dantzatuko duen taldearen azalpenarekin. Guztietan Azalean Aste Nagusiaren kartela ageri da "Folklore/Folclore Konstituzio plazan/Plaza de la Constitución" leloarekin (euskaraz hizki lodiz eta txuriz), ondoren taldearen izena (euskaraz) eta eguna (ele bitan, euskaraz hizki lodiz). Esku orriaren barruan, eskuinean dantza taldearen informazioa irakur daiteke, lehenengo euskaraz (letra lodiagoz) eta ondoren gazteleraz eta ezkerreko aldean, fitxa teknikoa euskaraz. Kontrazalean, esku orri bakoitzean taldearen logotipoa azalean agertzen den lelo berarekin (ele bitan).

3.1.1.1.5.5. Musika bandak

7 esku orri kaleratu dituzte egun bakoitzean jo behar duen musika bandarekin. Esku orriaren alde batean Aste Nagusiko kartela ageri da "**BANDAK** (hizki lodiz) BANDAS" leloarekin, ondoren musika bandaren izena eta eguna euskaraz (hizki lodiz) eta ondoren gazteleraz azaltzen dira. Esku orriaren beste aldean, lekua, eguna eta ordua (lehenengo euskaraz hizki lodiz eta ondoren gazteleraz) eta Musika banden errepertorioa dago (izenburuak jatorrizko hizkuntzan).

3.1.1.1.5.6. Arrantza txapelketa

Azalean euskaraz Arrantza txapelketaren laguntzaileen eta dataren informazioa azaltzen da eta kontrazalean informazio bera gazteleraz (letra txikiagoan). Esku orriaren barnealdean, ezkerrekoan, oinarriak eta informazioa gazteleraz (izenburuak urdinez) eta eskuinean, euskaraz (izenburuak laranja) irakurri daiteke.

3.1.1.2 Kartelak

3.1.1.2.1. Orokorra

Aurtengo Aste Nagusiko kartelaren leloa "Aste Nagusia" lehenengo euskaraz (hizki handiagoz) eta ondoren gazteleraz (hizki txikiagoan) dago. Lelo nagusiaren azpian data ageri da bi hizkuntzatan ("Abuztua 10-17 Agosto Donostia / San Sebastian).

3.1.1.2.2 Su artifizialak

Bertan ageri den informazioa bi hizkuntzatan dago. Izenburua lehenengo euskaraz eta ondoren gazteleraz dago (hizki txikiagoan nabarmen). Kalean jarritako egunez egungo egitarau panel handietan piroteknia etxeen izenak berezko hizkuntzan eta herrialdeen izenak euskaraz (Bizkaia, Valentzia, ...) daude.

3.1.1.2.3. Faroletakoak

Orokorra: Aste Nagusiko kartel orokorra bi hizkuntzatan zegoen lehentasuna euskaraz zuelarik.

Su artifizialetakoak: Euskarazko eta gaztelerazko zintzilikarioak txandakaturik zeuden, iragarlearen leloekin eta bozkatzeko oharrekin.

Amstelekoak: Euskaraz eta gazteleraz txandakaturik.

Eraso sexualen inguruko euskarriak ele bitan zeuden.

3.1.1.2.4. Bestelakoak

Bulebar erdian, Kursaal Kuboetan, Gipuzkoa plazan, Konstituzio plazan eta Easo plazan zeuden egitarau erraldoietan euskara izan da hizkuntza nagusia (are gehiago, kasu batzuetan egitaraua euskara hutsez topatu dugu).

Artisau Azokaren jardueren egitarauarekin bi orriko bat kaleratu zuten, hau ere bi hizkuntzetan lehentasuna euskarak duelarik.

Alderdi Ederren antolatutako Street Basket lehiaketan berriz, Super Amara eta Diario Vascok sinatuta jarritako karten handietan dena gazteleraz zegoen.

Barraketako gunean, takiletako prezioak eta kartel gehienak gazteleraz zeuden. Haurren egunekoa izan ezik, honakoa bi hizkuntzetan zegoen idatzita. Erosten ziren fitxak ere gaztelera hutsez. Haurrentzako ohe elastikoetan berriz, "sarrera" eta "irteera" euskaraz zuten, eta prezioen kartela ele bitan. Bertako mutilarekin hitz egin genuen eta San Pasaiaiko Udalak bertako jaietan eman zizkiela esan ziguten.

Hipikan banatzen zituzten esku orri eta paisai linguistiko guztia gazteleraz zegoen urtero aipatzen dugun bezala.

Nautikoan waterpoloa iragartzen zuen panela (Diario Vascok sinatua) gazteleraz ere topatu genuen.

Union musical de cabral bandak kaleratutako esku orria ere gaztelera hutsez zegoen. Programako piezen historia eta ezaugarriak biltzen dituen.

Hondartzaren kanpoaldean, Sagueseko kaiolan, tabernan jarri zuen Bera Berak eta bertan pankarta bat zegoen elebitan txapelketaren izenaren berri ematen.

Zurriola terrazan antolatu ziren haurrentzako tailerretan, asteko programazioa iragartzen zuen kartela euskara hutsean idatzita zegoen eta banatzen zituzten eguneko tailerraren berri ematen zuen esku orria euskaraz eta gazteleraz. Coca-Cola enpresak berriz, guneko eszenategian jarritako mezu eta esaldiak gaztelera hutsean jarri zituzten.

Bizikleta festaren kartela ele bitan kaleratu zen; ekintzaren nondik norakoak euskaraz eta gaztelaniaz azalduz.

Kursaal Gune Zabalean gazteen artean euskara sustatzeko jarri zen "*Festan blai!*" stand-ean, dena euskaraz irakurri ahal izan genuen (jarritako panel, esku orri, txartel...).

3.1.1.3. Web gunea (www.donostiakultura.org)

www.donostiakultura.org web orrian aurkitzen da Aste Nagusiaren informazioa. Webgunea zabaltzerakoan norberak ordenagailuan konfiguratua duen hizkuntzan irekitzen da; ondoren, euskara (eu), gaztelera (es), frantsesa (fr), edo ingelesa (en) aukera daiteke.

3.1.1.4. Prentsa oharra, publizitatea, ...

Aste Nagusiko berriak eta prentsaurrekoetarako gonbitak euskara hutsez edo ele bitan jaso ditugu.

3.1.2 Ahozko erabileraren neurketa

3.1.2.1 Prentsaurrekoak

Ekainaren 10ean, Aste Nagusiko kartela eta Sagueseko kontzertuen egitaraua aurkeztu ziren, Victoria Eugenia Antzokiko prentsa aretoan. Prentsaurrekoan Nerea Txapartegik (Udal Gobernuaren Kultura Arduraduna) eta Toya Huercanosek (kartelaren egilea) hartu zuten parte. Nerea Txapartegik prentsaurrekoa ele bitan egin zuen euskara eta gaztelera tartekatuz. Ondoren, Huercanosek euskaraz agurtu ondoren kartelaren nondik norakoak gaztelera eman zituen.

Uztailaren 30ean, Donostiako Aste Nagusiaren aurkezpena egin zen Kursaalera Urumea Terrazan. Prentsaurrekoan Juan Karlos Izagirre (Donostiako alkatea), Nerea Txapartegi (Donostiako Udal Gobernuaren Kultura eta Euskara arduraduna) eta Naiara Sampedro (Berdintasuneko zinegotzia) egon ziren.

Juan Karlos Izagirrek eman zion hasiera prentsaurrekoari eta egitarauaren zenbait ekintzen berri eman zituen euskara eta gaztelera tartekatuz. Bi hizkuntzak erabili bazituen ere euskaraz gehiago egin zuen. Ondoren, Nerea Txapartegik eskema bera erabiliz euskara eta gaztelera tartekatu zituen, bi hizkuntzetan informazio bera emanez. Jarraian Naiara Sampedrok hartu zuen hitza eraso sexisten aurkako kanpainaren berri emateko. Naiara, lehenengo euskaraz eta ondoren gaztelera aritu zen baina hizkuntza bakoitzean informazio propioa eman zuen.

Abuztuaren 8an, Donostiako Su Artifizialen 50. Nazioarteko Lehiaketa: 50 urte, 500 izozki lehiarekin aurkeztu zuten Cervantes plazan. Prentsaurrekoan Nerea Txapartegi (Donostiako Udal Gobernuaren Kultura eta Euskara Arduraduna) eta izozki dendetako ordezkari batzuk izan ziren.

Nerea Txapartegik eman zuen prentsaurrekoa, euskaraz lehenengo eta gaztelera ondoren. Informazio bera eman bazuen ere, euskaraz luzeago.

Aste Nagusiari buruz behatu diren prentsaurrekoak kontuan izanda, euskara eta gaztelaren erabilera orekatua izan da.

3.1.2.2 Bulegoko harrera

Donostia Kulturako bulegora telefonoz deitu edo bertara joan garenean, euskaraz egin dugu langileekin.

3.1.2.3 Ekitaldien ekintzak oro har Donostia Kulturak antolatutakoak

BALORAZIOA ORO HAR*		
DKk antolatua	Orotara	%
HG	71	42,52
Euskaraz	44	26,35
Gaztelera	28	16,77
Beste H/ hainbat H	12	7,18
Bi hizkuntzatan	12	7,18
Guztira	167	100,00

Oro har* : Aurkezpena eta ekintza beraren garapena oro har zein hizkuntzetan izan den hartzen da kontutan.

3.2 BESTE ELKARTE BATZUEK ANTOLATUTAKOAK

3.2.1 Ahozko erabileraren neurketa

BALORAZIOA ORO HAR*		
DKtik at	Orotara	%
Euskaraz	15	35,71
Gazteleraz	16	38,10
Bi hizkuntzatan	9	21,43
HG	2	4,76
Beste H/ hainbat H	0	0
Guztira	42	100

4. EKITALDI MOTAREN ARABERAKO SAILKAPENA

Guztira Aste Nagusian 358 ekitaldi ezberdin antolatu dira. Programazioaren barruan, urtean zehar ibilbide propioa duten zenbait jarduera kenduta (hala nola, Musika Hamabostaldia edo Victoria Eugenia Antzokian zein Antzoki Zaharrean egiten diren antzerkiak) BAGERA Elkarteak ekitaldien %73,68a behatu ditu.

Hona hemen taula ezberdinetan atera ditugun datuak sailez sail:

4.1. HAURRAK

Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpen a	Ekintza	Megafonia	Oro har	Monitorea
10	18:00	Urbietakalean	Erraldoi eta Buruhandiak	EZ	HG	EZ	HG	
11	11:00-14:30	Araba parkean	Puzgarriak	EZ	HG		Ele bitan*	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gazteleraz
11	16:00-20:00	Araba parkean	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	HG	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gazteleraz
11	11:00-13:30	Vinuesa plazan	Eskulan tailerra	Euskaraz	HG		Euskaraz+	Euskaraz gehien bat
11	17:30	Easo plazan	Haur festa: Antzokiko istorioak	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz	
11	18:00	Zurriola Terrazana	Haur Tailerra: Amazonaseko herri bat eraikitzen	Euskaraz	HG	Euskaraz	Euskaraz+	Bik euskaraz batek gazteleraz
11	18:30	Erdialdea	Erraldoi eta buruhandiak	EZ	HG	EZ	HG	
12	11:00-13:30	Vinuesa plazan	Haurrentzak o eskulan tailerra	Euskaraz	HG	EZ	Euskaraz+	Azalpenak guztioi euskaraz
12	16:00-20:00	Teresa de Calcuta plazan	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	Ele bitan*	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gazteleraz
12	17:30	Bulebarran	Bizikleta festa	Euskaraz+	HG	Euskaraz+	Euskaraz+	Euskaraz+

12	17:30	Zurriola n	Haur eskrima	Gaztelera	HG	Gaztelera*	Gaztelera*	Gaztelera*
12	18.00	Urgullen	Ipuinak uretan	Euskaraz	Euskaraz		Euskaraz	Euskaraz
12	18:00	Zurriola Terraza n	Haur Tailerra: Asia: mongoliako yurta bat egiten	Euskaraz+	HG	Euskaraz+	Euskaraz+	Bik euskaraz eta beste batek gaztelera
12	18:30- 20:30	Vinuesa plazan	Azulejuak zuri-beltzez apaintzako tailerra	Euskaraz	HG		Euskaraz	Azalpenak guztioi euskaraz
12	18:30	Abuztua k 31 kalean	Erraldoiak eta Buruhandiak	EZ	HG	EZ	HG	
13	11:00- 13:30	Vinuesa plazan	Eskulan tailerra	Euskaraz	HG		Euskaraz	Azalpenak guztioi euskaraz
13	16:00- 20:00	Sagastie der plazan	Puzgarriak	EZ	HG		Ele bitan	Ele bitan
13	17:30	Easo plazan	Aerobica	Ele bitan	HG	Gaztelera	Ele bitan*	Gaztelera+
13	17:30	Zuloaga plazan	Haur festa	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz
13	18:00	natur txokoan	Lorez lore, erleak ere	Ele bitan	Ele bitan		Ele bitan	Ele bitan
13	18:00	Kursaale ko Zurriola Terraza n	Haur tailerra: Europa. Irlandar etxe tradizionalak	Ele bitan+	HG	Euskaraz	Euskaraz+	Hirutik bik euskaraz egiten zuten besteak gaztelera
13	18:30	Zuloaga plazan	Erraldoi eta Buruhandiak erakusketa tailerra	EZ	HG	EZ	HG	
14	11:00- 13:30	Vinuesa Plazan	Eskulan tailerra	Euskaraz	Euskaraz+		Euskaraz+	Euskaraz+

14	16:00-20:00	Simona la Just plazan	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	Ele bitan*	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gazteleraz
14	17:30	Konstituzio plazan	Gari, Montxo eta Joselontxo	Euskaraz	Euskaraz		Euskaraz	
14	17:30	Zurriola pasealekuan	Haur eskrima	Gazteleraz	HG	Gazteleraz*	Gazteleraz*	Gazteleraz*
14	18:00	Urgull mendiko Natur Txokoan	Munduko animaliak	Ele bitan	Ele bitan		Ele bitan	Ele bitan
14	18:00	Kursaaleko Zurriola Terrazan	Haur tailerra: Afrika, dogon herrixka	Euskaraz	HG	Euskaraz	Euskaraz+	Bi euskaraz batek gazteleraz
14	18:30-20:30	Viunesa plazan	Koadernatze tailerra	Euskaraz	HG	EZ	Euskaraz+	Euskaraz gidatu zuen tailerra baina jendearen galderak egindako hizkuntzan
14	18:30	Erdialdea	Erraldoi eta buruhandiak	EZ	HG	EZ	HG	
15	11:00-13:30	Vinuesa plazan	Haurrak: eskulan tailerra	Euskaraz	HG		Euskaraz	Orokorrean euskaraz
15	11:00-14:30	Zurriola pasealekuan	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	Ele bitan*	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gazteleraz
15	16:00-20:00	Zurriola pasealekuan	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	Ele bitan*	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gazteleraz
15	17:30	Easo plazan	Haurrak Aerobica	Ele bitan	HG	Gazteleraz	Gazteleraz +	Gehiago gazteleraz euskaraz hitz batzuk
15	17:30	Gipuzkoa plazan	Mago Sun	Euskaraz	Euskaraz		Euskaraz	

15	18:00	Kursaale ko Zurriola Terraza n	Haur tailerra: Ipar Amerika, Yucango	Euskaraz	HG	Beste hizkuntzak/gaztel eraz	Euskaraz+	Bik euskaraz hirugarren batek gaztelera z
15	18:30- 20:30	Vinuesa plaza	Birziklatzeko materialez egindako sorkuntza tailerra	Gaztelera z	HG	Musika gaztelera z gehin bat	Gaztelera z	Monitoreak gaztelera z eman zituen azalpenak
15	18:30	Kontxak o paseale kuan	Erraldoi eta buruhandiak	EZ	HG	EZ	HG	
16	11:00- 13:30	Vinuesa plazan	Haurrentzak o eskulan tailerra	Euskaraz	HG		Euskaraz	Euskaraz
16	16:00- 20:00	Txirrita bertsola ri kalean	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	Ele bitan*	Gaztelera ko ohitura
16	17:00	Kursaale ko Zurriola Terraza n	Haurrentzak o jolasak	Ele bitan	Euskaraz+	Ele bitan	Ele bitan+	Euskaraz+
16	18:00	Urgullen	Napoleon, jolastu nahi duzu?	Ele bitan	Elebitan		Ele bitan	Ele bitan
16	18:30- 20:30	Vinuesa plazan	Beira mosaiko tailerra	Euskaraz+	HG	Euskaraz+	Euskaraz+	Euskaraz+
16	18:30	Kaian	Erraldoi eta Buruhandiak	EZ	HG	EZ	HG	
17	11:00- 14:00	Sagues	Haur parkea	Gaztelera z	Gaztelera z	Gaztelera z	Gaztelera z	
17	16:00- 18:00	Sagues	Haur parkea	Gaztelera z	Gaztelera z	Gaztelera z	Gaztelera z	
17	11:00- 14:30	Okendo plazan	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	Ele bitan*	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gaztelera z
17	16:00- 20:00	Okendo plazan	Puzgarriak	EZ	HG	EZ	Ele bitan*	Euskaraz bazekiten ere lehen hitza gaztelera z

17	11:00-13:30	Vinuesa plazan	Haurrak eskulanak	Euskaraz	HG	Euskaraz	Euskaraz+	Azalpenak guztioi euskaraz
17	18:00	Kursaaleko Zurrila terrazan	Haur tailerra: Ozeania, Ginea Berriko goialdeko herrixka	Euskaraz	HG	Euskaraz	Euskaraz	Bik euskaraz eta batek gaztelera
17	18:30-20:30	Vinuesa plazan	Tutuz putz egindako beira erakusketa	Euskaraz	HG		Euskaraz	
17	18:30	Erdialdean	Erraldoi eta buruhandiak	EZ	HG	EZ	HG	
17	20:30	Zuloaga plazan	Erraldoi eta buruhandien agurra	EZ	HG	EZ	HG	
	Egun osoan	Koldo Mitxele na kulturunean	Haurrak feria	EZ	HG	Denetarik	HG*	

Ele bitan+= Bi hizkuntzak erabili badira ere euskaraz nabarmen gehiago egin da
Ele bitan*= Bi hizkuntzak erabili badira ere gaztelera gailendu da

Euskaraz+= Euskaraz gehien bat
Gaztelera+= Gaztelera gehien bat

Kursaaleko Zurriola terrazan "Munduko arkitektura"-ren hainbat herrialdeen inguruan egindako tailerretan, hiru begirale egoten ziren; bi euskaldun eta erdaldun bat. Ekimena eramaten zuenak euskaraz egiten zuen gehien bat eta erdalduna laguntzen aritzen zen. Oro har euskara zen gehien erabili zen hizkuntza.

Vinuesa plazan egindako eskulan tailerretan, euskaraz gidatu zituen tailer gehinak eta jendearen galderak egindako hizkuntzan erantzuten zituen. Baina abuztuaren 15eko arratsaldeko tailerra nahiz eta programan euskaraz zela jartzen zuen gaztelera eman zituen azalpen guztiak.

Puzgarrietan, aldiz, zeuden begiraleen joera gaztelera izaten zen nahiz eta euskaraz jakin.

Haur eskriman ere, gaztelera gailendu zen nabarmen. Hala ere, gure behatzaileetako batek euskaraz egiteko proposatu zienean hitz batzuk euskaraz tartekatu zituzten azalpenetan.

OROTARA HAURRAK				
	Aurkezpena	Ekintza	Oro har	Oro har %
HG/Ez	20	42	11	20,37
Euskaraz	20	7	23	42,59
Ele bitan	7	2	14	25,93
Gaztelera	5	3	6	11,11
Beste H/ H anitzak	0	0	0	0
Guztira	54	54	54	100

4.2. MUSIKA

Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Oro har
Abuztuak 10	18:15	Trinitate plazan	Goazen Kanoikadara!!!	EZ	HG	HG
10	18:25	Erdialdean	Kanoikadaren erritmoan!!!	EZ	EZ	HG
10	19:00	Vinuesa plazan	Octopu's	EZ	Gaztelera	Gaztelera
10	19:00	Erdialdean	The Joselontxo's	EZ	HG	HG
10	19:00	Parte Zaharrean	Taupada batukada	EZ	HG	HG
10	19:00	Erdialdean	Los bebes de la bulla	EZ	HG	HG
10	19:00	Kontxan	Deiadar	EZ	HG	HG
10	19:00	Bulebarrean	Skakeitan	EZ	Euskaraz	Euskaraz
10	20:00-22:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Skasti	EZ	Euskaraz	Euskaraz
10	20:30	Konstituzio plazan	XXXVI. Txistulari Alardea	Euskaraz	HG	HG
10	23:15-02:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Oihan Vega	Euskaraz	HG	Euskaraz
10	23:30	Bulebarreko kioskoan	Kherau	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
10	23:45	Saguesen	Auryn	Hiru eletan	Gaztelera/ingelesez	Gaztelera
Abuztuak 11	18:30	Zurriolako pasealekuan	Deiadar txaranga	EZ	HG	HG
11	18:30	Hiriaren erdian	A gritos band txaranga	EZ	HG	HG
Abuztuak 11	19:00	Vinuesa plazan	Tik-Tara musika afrokubatarra	EZ	Euskaraz	Euskaraz
11	19:00	Bulebarreko kioskoan	Kalegorriko musika banda	Hiru eletan	HG	HG
11	21:30-22:30	Kursaaleko Urumea Terrazan	Aziza Brahim Saharako musika tradizionala	EZ	BH	BH
11	23:30	Bulebarreko kioskoan	Una noche sin Sabina	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
11	23:45	Saguesen	Julieta Venegas	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
Abuztuak 12	13:30-14:30	Kursaaleko Urumea Terrazan	Jan Fol	EZ	Ingelesez	BH
12	18:30	Zurriolako pasealekuan	The Joselontxo's txaranga	EZ	HG	HG
12	18:30	Hiriaren erdialdean	Los paisai txaranga	EZ	HG	HG
12	19:00	Bulebarrean	Union musical de cabral	Hiru eletan	HG	HG
12	21:00-22:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Qbamba afro jazz	EZ	Beste hizkuntza	Beste hizkuntza
12	23:15-02:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Mr Party	EZ	HG	HG
12	23:30	Bulebarreko kioskoan	Ego pop-rocka	Hiru eletan	Ingelesez	BH
12	23:45	Saguesen	Betagarri	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 13	12:00-22:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Urban 13	EZ	Denetarik/Gaztelera	Gaztelera*

Abuztuak 13	18:30	Zurriolako pasealekuan	A gritos band txaranga	EZ	HG	HG
13	18:30	Hiriaren erdialdean	The Joselontxo's	EZ	HG	HG
13	19:00	Aquariumeko Auditorioan	Iñaki eta Beñat Revuelta	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz
13	19:00	Bulebarreko kioskoan	Trintxerpeko Illumbe musika banda	Hiru eletan	HG	HG
13	23:15-02:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Urban 13	EZ	Denetarik/Gaztelera	Gaztelera+
13	23:45	Saguesen	Gatibu	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 14	13:30-14:30	Kursaaleko Urumea Terrazan	Yemamah	EZ	BH	BH
14	18:30	Kontxako pasealekuan	Los paisai txaranga	EZ	HG	HG
14	18:30	Zurriolako pasealekuan	Gauerdia txaranga	EZ	HG	HG
14	19:00	Aquariumeko Auditorioan	Gorka eta Eider Zabaleta	EZ	Euskaraz	Euskaraz
14	19:00	Kontxako pasealekuan	Elegancia Mexicana	Ez	Gaztelera	Gaztelera
14	19:00	Bulebarreko kioskoan	Orcheste Harmonie de Biarritz	Hiru eletan	HG	HG
14	19:30	Andra Mariako basilikan	Donostiako Orfeoia	EZ	Denetarik	Denetarik
14	20:00	Konstituzio plazan	La Ribera Canta	EZ	Gaztelera	Gaztelera
14	23:15-02:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Disco Bambino	EZ	HG	HG
14	23:30	Bulebarreko kioskoan	Elegancia mexicana	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
14	23:45	Saguesen	Riot propaganda	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
Abuztuak 15	13:30-14:30	Kursaaleko Urumea Terrazan	Lou Topet	EZ	Euskaraz	Euskaraz
15	18:30	Zurriola pasealekuan	Gauerdia txaranga	EZ	HG	HG
15	18:30	Erdialdean	Tximeleta txaranga	EZ	HG	HG
15	19:00	Bulebarreko kioskoan	Irun Hiria Musika banda	Hiru eletan	HG	HG
15	21:00-22:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Arizona Baby	EZ	BH	BH
15	23:15-02:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Alex Nomaklito	EZ	HG	HG
15	23:30	Bulebarreko kioskoan	Cachivache tangoak	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
15	23:45	Saguesen	Lain	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
15	23:45	Saguesen	Obrint pas	Hiru eletan	Katalanez	Katalanez
Abuztuak 16	13:30-14:30	Kursaaleko Urumea Terrazan	Tristan Crowley	EZ	Ingelese	Ingelese
16	18:30	Kontxako pasealekuan	Gauerdia txaranga	EZ	HG	HG

16	18:30	Hiriaren erdian	Tximeleta txaranga	EZ	HG	HG
16	19:00	Bulebarreko Kioskoan	Harmonie Bayonnaise	Hiru eletan	HG	HG
16	21:00-22:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Tristan Crowley	EZ	Ingelese	Ingelese
16	23:30-02:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Alex del Toro	EZ	Denetarik*	Denetarik*
16	23:45	Saguesen	Fermin Muguruza kontrakantxa	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 17	13:30-14:30	Kursaaleko Urumea Terrazan	Mary May	EZ	Ingelese	Ingelese
Abuztuak 17	18:30	Zurriola pasealekuan	Los bebes de la bulla txaranga	EZ	HG	HG
17	19:00	Kontxako pasealekuan	Los pasai txaranga	EZ	HG	HG
17	20:00-21:00	Kursaaleko Urumea Terrazan	Xabi San Sebastian band	EZ	Euskaraz	Euskaraz

Urban 13 taldeak, hizkuntza ezberdinetako musika jarri zuten baina ondoan graffitia egiten ari ziren bi paneletan eta gazteleraz egiten zieten gazteei.

Kursaal Gune Zabalarri dagokionez, aurten Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak jaietan gazteen artean euskararekiko motibazioa sustatzeko ekimen bat antolatu zuen Kultur K2an zerbitzuarekin batera. Festan blai! Lelopean, kontzertuetara gerturatzen ziren gazteei flyer bat eta pegatina bat banatu zitzaizkien. Flyerrean pegatinarekin egin behar zutena azaltzen zen euskaraz: *"bakoitzak kanta baten esaldi zati bat izango du pegatinan idatzita, eta beste zatia beste norbaitek izango du"*. Topatu eta esaldia osatzen bazuten Festan Blai!-ren stand-een merchandising opari bat ematen zieten.

Horretaz gain, abuztuaren 17an, jaien azken egunean Zurriolako hondartzan apar festa antolatu zuten DJ euskaldun baten laguntzarekin.

OROTARA MUSIKA				
	Aurkezpena	Ekintza	Oro har	Oro har %
HG/Ez	44	31	30	45,45
Euskaraz	3	12	13	19,70
Gazteleraz	0	11	11	16,67
Ele bitan / Hiru eletan	19	0	0	0
Beste H/ H anitzak	0	12	12	18,18
Guztira	66	66	66	100

4.3. KIROLA

Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Megafonia	Oro har	Monitorea
10	10:00-13:00	Zurriolako hondartzan	III. Errugbi lehiaketa	Ele bitan	HG		Ele bitan	Ele bitan
10	15:00-20:00	Zurriolako hondartzan	III. Errugbi lehiaketa	Ele bitan	HG		Ele bitan	Ele bitan
11	10:00-14:00	Zurriola hondartzan	III. Hondartza errugbi lehiaketa	Ele bitan	HG		Ele bitan	Esatariek informazio bera ele bitan
12	10:00-13:00	Benta Berriko	Futbol 5	Gazteleraz	HG		Gazteleraz	Gazteleraz

		kiroldegian						
12	10:00	Trinitate plazan	Pilota ikastaroa	EZ	HG	EZ	Euskaraz+	Euskaraz
12	11:00	Trinitate plazan	Barrene	EZ	HG	EZ	HG	Ohiko gizonaz gain beste bi gazte zeuden euskaraz egiten zutenak
12	17:45	Donostiako hipodromoa n	Zaldi Lasterketa	Gaztelera	Gaztelera	Gaztelera	Gaztelera	Gaztelera
13	11:00	Nautikoan	Waterpolo	EZ	HG	Musika atzerrikoa gehien bat	Gaztelera+	Gaztelera
13	17:00	Trinitate plazan	I. Pala lehiaketa mistoa	Ele bitan+	HG	EZ	Euskaraz+	Epailea euskaraz gehien bat
14	10:00-13:00	Benta Berriko kiroldegian	Futbol 5 lehiaketa	Gaztelera	HG		Gaztelera	Gaztelera
14	10:00	Trinitate plazan	Pilotan ikasten hasteko ikastaroa	EZ	HG	EZ	Euskaraz+	Euskaraz
14	11:00	Trinitate plazan	Barrene	EZ	HG	EZ	HG	Euskaraz
14	11:00	Nautikon	Waterpolo	EZ	HG	Musika atzerrikoa eta gaztelera gehien bat	Gaztelera+	Arbitroek gaztelera
14	16:00	Trinitate plazan	XX. Esku pilota lehiaketa	Ele bitan	HG	EZ	Euskaraz+	Euskaraz+
15	10:00-20:00	Zurriola hondartzan	Boleiko herri lehiaketa	EZ	HG	Ele Bitan*	Gaztelera+	Gaztelera
15	11:00	Zurriola hondartzatik Kontxako hondartzara	XLV. Igerialdia	EZ	HG	HG	HG	
15	17:45	Donostiako Hipodromoa n	Zaldi Lasterketa	Gaztelera	HG	Gaztelera	Gaztelera	Esatariak gaztelera
16	10:00-13:00	Urumea Ibaian	XIX. Arrantza lehiaketa	EZ	HG	EZ	HG*	Sari banaketa gaztelera egin zuten gehien bat
16	10:00-13:00	Benta Berriko kiroldegian	Futbol 5 lehiaketa	Gaztelera+	HG		Gaztelera	Gaztelera

16	10:00	Trinitate plazan	Pilotan ikasten hasteko ikastaroa	EZ	HG	EZ	Euskaraz+	Euskaraz
16	11:00	Trinitate plazan	Barrene	EZ	HG	EZ	HG	Euskaraz
16	11:00	Nautikoan	Waterpoloa	EZ	HG	Musika atzerrikoa gehien bat Ingelesezt	Gaztelerazt	Gaztelerazt
16	16:00-20:00	Alderdi Eder	Street Basket	Ele bitan	HG		Gaztelerazt	Deialdiak, partiduen jarraipena, animoak ... gaztelerazt
16	16:00	Trinitate plazan	XX. Esku pilota lehiaketa	Ele bitan	HG	EZ	Euskaraz+	Euskaraz+
17	9:00-14:00	Alderdi Ederren	Street Basket	EZ	HG	Ele bitan oharrak	Gaztelerazt	Gaztelerazt
17	9:30	Nautiko ontzirategian	Piraguismoa	EZ	HG	EZ	HG	
17	11:00	Nautikoan	Waterpoloa	EZ	HG	Musika atzerrikoa gehien bat	Gaztelerazt	Gaztelerazt
17	16:00-19:30	Alderdi Ederren	Street basket	Gaztelerazt	HG	Gaztelerazt	Gaztelerazt	Gaztelerazt gehien bat
17	18:00	Zurriolako hondartzan	IV. Eskrima masterra	Gaztelerazt	HG		Gaztelerazt	Gaztelerazt
17	10:00-19:00	Donostiako Real Sociedad Hipikan	V. Jauzi lehiaketa	Gaztelerazt	HG	Gaztelerazt	Gaztelerazt	Gaztelerazt

OROTARA KIROLA						
	Aurkezpena	Ekintza	Bozgorailua	Gidaria	Oro har	Oro har %
HG/Ez	15	30	10	2	6*	20
Euskaraz	0	0	0	10	6	20
Gaztelerazt	8	0	5	16	15	50
Ele bitan /Hiru eletan	7	0	2	2	3	10
Beste H/ H anitzak	0	0	3	0	0	0
Guztira	30	30	30	30	30	100

* Arrantza lehiaketa nahiz eta ekimena hizkuntzarik gabea izan, sari banaketan gaztelera gailendu zen nabarmen.
* Waterpoloan zein Street Basket-en nahiz eta megafoniatik noiz behinka arauak hizkuntza ezberdinetan azaldu, ondoren gidariak tantoen berri, animoak, deialdiak etab gaztelerazt esaten zituen bakarrik.

4.4. FOLKLOREA

Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Oro har
Abuztuak 10	23:30	Easo plazan	Café Irlandés	Hiru eletan	Gaztelera*	Gaztelera
Abuztuak 11	20:00	Konstituzio plazan	Kresala dantza taldea	Euskaraz	HG	HG

Abuztuak 11	23:30	Konstituzio plazan	Bide Batez erromeria	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
11	23:30	Easo plazan	Egan	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 12	12:00	Easo plazan	Bertsolariak	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz
12	20:00	Konstituzio plazan	Gero Axular dantza taldea	EZ	HG	HG
12	23:30	Konstituzio plazan	Boston jaia	Hiru eletan	Euskaraz*	Euskaraz*
12	23:30	Easo plazan	Tsunami orkestra	Hiru eletan	Gaztelera*	Gaztelera*
Abuztuak 13	20:00	Konstituzio plazan	Eskola Dantza Taldea	Ele bitan+	HG	HG+
13	23:30	Konstituzio plazan	Ingo al deu? Erromeria	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 13	23:30	Easo plazan	Amets taldea	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
Abuztuak 13	23:30	Bulebarreko kioskoan	Txertubi euskal folka	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 14	12:00	Easo plazan	Bertsolariak	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz
14	23:30	Konstituzio plazan	Bat-batean, Munduko musikekin bertsotan	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
14	23:30	Easo plazan	Ibai berriak	Hiru eletan	Gaztelera	Gaztelera
Abuztuak 15	20:00	Konstituzio plazan	Goizaldi dantza taldea	Euskaraz	HG	HG
15	23:30	Konstituzio plazan	Erdizka lautan erromeria	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
15	23:30	Easo plazan	Agirren taldea	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 16	12:00	Easo plazan	Bertsolariak	Euskaraz	Euskaraz	Euskaraz
16	20:00	Konstituzio plazan	Trebeska dantza taldea	Euskaraz	HG	HG
16	23:30	Konstituzio plazan	Ai ene erromeria	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
16	23:30	Easo plazan	Avenida orkestra	Hiru eletan	Gaztelera*	Gaztelera*
16	23:30	Bulebarreko kioskoan	C. Garmendia eta M. Govillard	Hiru eletan	HG	HG
Abuztuak 17	20:00	Konstituzio plazan	Arkaitz Añorgako Dantzariak	EZ	HG	HG

OROTARA FOLKLOREA				
	Aurkezpena	Ekintza	Oro har	Oro har %
HG/Ez	2	7	7	29,17
Euskaraz	6	12	12	50
Gaztelera	0	5	5	20,83
Ele bitan / Hiru eletan	16	0	0	0
Beste H/ H anitzak	0	0	0	0
Guztira	24	24	24	100

* Oharra: Aurreko urteetan Easo plazako dantzaldiak musika atalean sartzen genituen, aurreko aldiz, folklorean sartu ditugu programan horrela sailkatuta agertzen direlako.

4.5. SU ARTIFIZIALAK

Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Megafonia	Oro har
Abuztuak 10	22:45	Kontxako badian	Su artifizialak	Ele bitan	HG	EZ	HG
Abuztuak 11	22:45	Kontxako badian	Su artifizialak	Ele bitan	HG	EZ	HG

Abuztuak 12	22:45	Kontxako badian	Su artifizialak	Ele bitan	HG	EZ	HG
Abuztuak 13	22:45	Kontxako badian	Su Artifizialak	Ele bitan	HG	EZ	HG
Abuztuak 14	22:45	Kontxako badian	Su Artifizialak	Ele bitan	HG	EZ	HG
Abuztuak 15	22:45	Kontxako badian	Su Artifizialak	Ele bitan	HG	EZ	HG
Abuztuak 16	22:45	Kontxako badian	Su Artifizialak	Ele bitan	HG	EZ	HG
Abuztuak 17	22:45	Kontxako badian	Su festak	Ele bitan*	HG	EZ	HG*

*Azken eguneko su festan, nahiz eta ele bitan egin zen, euskara nahiko era traketsean erabili zen.

4.6. ANTZERKIA

Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Saila	Aurkezpena	Ekintza	Oro har
Abuztuak 10	23:30	Gipuzkoa plazan	Humanus comunicus	Antzerkia	Hiru eletan	Gaztelaraz	Gaztelaraz
Abuztuak 11	23:30	Gipuzkoa plazan	Gezurtiak	Antzerkia	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 12	23:30	Gipuzkoa plazan	Anplag	Antzerkia	Hiru eletan	Gaztelaraz	Gaztelaraz
Abuztuak 13	19:00	Vinuesa plazan	Org.amen	Antzerkia	Hiru eletan	Gaztelaniaz	Gaztelaraz
Abuztuak 13	23:30	Gipuzkoa plazan	Txarlestrop	Antzerkia	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 14	23:30	Gipuzkoa plazan	Mas que vecinos	Antzerkia	Hiru eletan	Gaztelaraz	Gaztelaraz
Abuztuak 15	23:30	Gipuzkoa plazan	Atsoak dantzan	Antzerkia	Hiru eletan	Euskaraz	Euskaraz
Abuztuak 16	23:30	Gipuzkoa plazan	Nahaste-borraste	Antzerkia	Hiru eletan	HG	HG

OROTARA ANTZERKIA				
	Aurkezpena	Ekintza	Oro har	Oro har %
HG/Ez	0	2	2	25
Euskaraz	0	3	3	37,5
Gaztelaraz	0	3	3	37,5
Ele bitan / Hiru eletan	8	0	0	0
Beste H/ H anitzak	0	0	0	0
Guztira	8	8	8	100

* Gipuzkoa plazan 7 antzezlan izan dira (3 euskaraz, 2 hizkuntza gabeak eta 2 gaztelaraz). Vinuesa plazako antzezlanaz gaztelaraz izan da.

4.7. BESTEAK

Eguna	Ordua	Lekua	Jarduera	Aurkezpena	Ekintza	Megafonia	Oro har	Monitorea
Abuztuak 10	19:00	Alderdi Ederren	Festarako kanoikada	Ele bitan	Euskaraz	Ele bitan	Ele bitan	
Abuztuak 10	23:30	Hainbat	Zezensuzkoa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 11	12:30	Bretxan	Entsaladilla lehiaketa	Ele bitan*	HG	Euskaraz+	Ele bitan*	Ele bitan*
Abuztuak 11	23:30	Hainbat	Zezensuzkoa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 12	08:00	Kaian	Baltsak muntatzea	EZ	HG	Euskaraz	HG+	
Abuztuak 12	12:00	Aquariumean	V. Zinea eta Itsas astea	Gaztelaraz	Gaztelaraz		Gaztelaraz	
Abuztuak 12	17:00	Kaian	Abordaia	Euskaraz	HG	Euskaraz	Euskaraz	

Abuztuak 12	23:30	Londres Hotelean	Zezensuzko entzierroa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 13	12:00	Zurriola pasealekuan	Merenge gerra	Gaztelera	HG		Gaztelera+	Bi monitore egon ziren bata gaztelera eta bestea zertxobait euskaraz
Abuztuak 13	12:00	Aquariumean	V. Zine eta Itsas Astea	Euskaraz	Euskaraz		Euskaraz	
Abuztuak 13	23:30	Hainbat	Zezensuzko entzierroa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 14	12:00	Aquariumean	V. Zine eta Itsas Astea	Ele bitan	Ele bitan		Ele bitan	
Abuztuak 14	23:30	Hainbat	Zezensuzko entzierroa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 15	12:00	Aquariumean	V. Zine eta Itsas Astea	EZ	Gaztelera		Gaztelera	
Abuztuak 15	23:30	Hainbat	Zezensuzko entzierroa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 16	12:00	Aquariumean	V. Zine eta Itsas Astea	EZ	Gaztelera		Gaztelera	
Abuztuak 16	23:30	Hainbat	Zezensuzko entzierroa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 17	11:00	Konstituzio plazan	Marmitako lehiaketa	Ele bitan*	HG		Ele bitan*	Gaztelera+
Abuztuak 17	23:30	Hainbat	Zezensuzko entzierroa	EZ	HG	EZ	HG	
Abuztuak 12	12:00	Perlako terrazan	Patata tortilla lehiaketa	Ele bitan	HG	Musika euskaraz	Ele bitan	Bi esatari bata euskaraz eta bestea gaztelera

OROTARA BESTEAK				
	Aurkezpena	Ekintza	Oro har	Oro har %
HG/Ez	11	14	9	45
Euskaraz	2	2	2	10
Gaztelera	2	3	4	20
Ele bitan / Hiru eletan	5	1	5	25
Beste H/ H anitzak	0	0	0	0
Guztira	20	20	20	%100

* Marmitako eta entsaladilla lehiaketan, nahiz eta antolakuntzatik bi hizkuntzak erabili zituzten gaztelera gailendu zen.

*Merenge gerran, jokoa hasi zenean, erabat gaztelaniaz aritu ziren, umeak antolatzen, aholkuak ematen, 1-2-3 esan arte. Bukatu zenean, txikien txanda iritsi zenean, esatariak zerbait euskaraz egin zuen eta gure behatzaileetako batek ozenki "*bazen garaia euskara agertzeko*" esan zuenean jolasaren antolatzaileetako bat esatariarengana hurbildu eta handik aurrera neskak zerbait gehiago aritu zen euskaraz. Hala ere, txikien ondoren nagusien txanda iritsi zenean berriro gaztelera jo zuten.

5. ONDORIOAK ETA BALORAZIOA

Aurten BAGERAk Aste Nagusiko ekitaldien %73,68a behatu du, hauetatik %80a Donostia Kulturak antolatuak eta %20a beste elkarteek antolatutakoak. Ohi den bezala, Donostia Kulturak antolatutako ekitaldien eta beste entitate pribatuek antolatutako ekitaldien arteko bereizketa egin dugu.

5.1. DONOSTIA KULTURAK ANTOLATUTAKOAK

5.1.1. Idatzizko materialaren azterketa

Idatzizko materialari dagokionez, kaleratutako material idatzian elebitasuna zaindu da, eta euskarari lehentasuna eman zaio. Zenbait euskarrietan testuak bi hizkuntzatan idatziak bazeuden ere, euskara gailendu da. Are gehiago, euskara hutsezko testuak ere topatu ditugu; (hala nola, kalean jarritako egitarau erraldoietan).

Bestetik, prentsarako dossierretan aurreko urteetako akatsak zuzendu dira. Aurreko urteetan ez bezala, euskarazko testuak zaindu dira eta gramatikalki urtero egon diren akatsak zuzendu egin dira.

Webgunearen kasuan ere, iaz bezala, informazio osoa euskaraz jaso zitekeen eta euskara txukunean.

5.1.2. Ahozko erabileraren azterketa

Donostia Kulturak antolatu dituen ekitaldietan, **aurkezpenei dagokionez**, izandako emaitzak hauek dira: Aurkezpenik gabekoak % 44,64 izan dira, % 37,50 bi hizkuntzatan edo hiru hizkuntzatan aurkeztu dira; euskaraz % 11,91 eta gaztelaraz % 5,95.

Aurkezpenik izan ez duten ekitaldiak alde batera utzita, Donostia Kulturak antolatu dituen ekitaldietan, aurkezpenak honela izan dira:

- Bi hizkuntzatan / hiru hizkuntzatan %67,74
- Euskaraz %21,51
- Gaztelaraz %10,75

Ekintzen hizkuntza erreparatuz gero, hizkuntzarik erabili ez duten ekitaldiak izan dira nagusi: % 58,33. Jarraian euskaraz garatutakoak: %19,05. Gaztelaraz %12,50. Ondoren, beste hizkuntzaren bat (euskara eta gaztelera ez dena) erabili dutenak: % 7,74 eta azkenik, bi hizkuntzak erabili dituztenak: %2,38.

Hizkuntzarik erabili ez duten ekitaldiak kenduta, ondoko datu hauek bildu ditugu:

- Euskaraz.....% 45,72
- Gaztelaraz.....% 30
- Beste hizkuntzaren bat..... % 18,57
- Bi hizkuntzatan.....% 5,71

Aurten beste hizkuntzatan egin diren ekintzen kopurua zertxobait gora egin du (%17,39tik %18,57a). Ele bitan egin diren ekintzak ere mantendu dira (iaz 5,80 eta aurten

5,71). Euskara hutsez edo euskaraz gailendu diren ekimenek gora egin dute (% 36,23tik %45,72ra) eta gaztelera egin direnak aldiz jaitsi dira (gaztelera kasuan 40,58tik %30era). Aurten lehen aldiz, euskara izan da ekimenetan gehien erabili den hizkuntza, aurrerapauso pozgarria da.

- **Ahozko hizkuntzari dagokionez, atalez atal zer nolako emaitza izan den aztertu dugu.**

Su artifizialen aurkezpena euskaraz eta gaztelera egin da urtero bezala. Baina aipatu behar dugu azken egunean "Su festan" bi hizkuntzak erabili baziren ere, euskaraz nahiko era traketsean egin zela.

Kirolen atalean, aurkezpena izan duten 6 kasuetan, 3 euskaraz izan dira (ekimen batzuetan gaztelera oso gutxi erabili denez euskarazkoak kontsideratu ditugu, berdin egin dugu gaztelera kasuan) eta 3 gaztelera. Beste 8 kasutan ez dute aurkezpenik izan. Aurten 4 ekimen aipatu nahi genituzke: **arrantza** lehiaketaren kasuan, nahiz eta ekintza berak hizkuntzarik gabekoa izan, sari banaketan gaztelera nabarmendu da. **Igeriketa zeharkaldian**, aldiz, sari banaketa euskaraz egin zuten. Bentaberriko kiroldegian antolatzen den **futbol 5** partiduetan berriz, zeuden antolatzaileek gaztelera hutsez aritzen ziren, bai araudia edota nondik norakoak azaltzeko orduan. Horretaz gain, **Zaldi lasterketa** nabarmendu nahi genuke bereziki, bertan ez baikenuen euskararen inolako arrastorik ikusi (bai esatari, langile, zein sarreren salmentan egon zirenen aldetik).

Folklore emanaldiei dagokienez, txostenean aipatu bezala, aurten Easo plazan antolatu diren musika taldeak sartu ditugu programa ofizialean banaketa hori egin dutelako eta iazko datuekin alderatuta aldaketak daudelako. Aurkezpena egin den kasuetan, aurkezpen gehienak hiru hizkuntzetan izan dira eta grabatutako aurkezpenak ziren (24 ekimenetik 15etan). Besteak berriz, taldearen arabera izan dira eta gehienek euskara hutsez egin dute. Jarduera bara kontuan hartuz gero, 12 euskaraz izan dira, 7 hizkuntzarik gabeak eta 5 gaztelera izan dira.

Musika atalean, Sagueseko eta Bulebarreko emanaldietan ere, grabatutako aurkezpenak hiru hizkuntzetan izan dira. Kursaleko emanaldietan ez da aurkezpen grabaturik izan eta gehienetan musika joz hasi dira. Oro har, 62 musika ekimen behatu ditugu, hauetatik 30 hizkuntzarik gabekoak, 12 beste hizkuntza batean, 10 euskara hutsez eta 10 gaztelera izan dira.

Aurten musikan, euskaraz abesten duten talde zein bakarlariak gaztelera kasuan pare izan dira (iaz euskarazko taldeak gehiago izan ziren lehen aldiz). Hala ere, aurten, euskarazko talde eta bakarlariak gune guztietara zabaldu dira eta hori oso garrantzitsua da. Orain arte, Donostiako gune askotan euskarazko musikaren presentziarik ez baitzegoen.

Haurren atalean, aurkezpenari baino haur jaialdiaren hizkuntza garapenari eman nahi dio garrantzia BAGERAK. Aurten, **"Zurriola Kultura Irekia"** iaz bezala, tailerra erakusten zuten 3 begiraleetatik 2 euskaldunak ziren eta bestea erdalduna. Tailerraren ardura nagusia, edo gehien hitz egiten zuena, begirale euskalduna bazen ere, BAGERA Elkarteak uste du 3 begiraleak euskaldunak izan beharko lirakeela. Urtero aipatzen dugun moduan, BAGERA Elkartean iritziz, haurren ekintzetan parte hartzen duten begiraleek euskararen sustatzaile izan beharko lukete eta horretarako baliabideak eskaini behar zaizkie. Bestalde, haurrentzako **eskriman**, aurten gaztelera gailendu da. Hasieran gaztelera eman zituen azalpen guztiak eta gure behatzaileetako batek arduradunarekin hitz egin ondoren hitz batzuk euskaraz esan zituen baina gaztelera izan zen ia ekimen osoa. Beste hutsune handi bat topatu dugun: abuztuaren 17an

Saguesen izandako **haur parkean** izan da. Bertan zeuden begiraleek gaztelera egiten zuten. Azkenik aipatu behar dugu, haurrentzako **aerobicean** aurreko urteetan gaztelera hutsez izatetik aurtan hitz batzuk euskaraz egin dituela (bat, bi, ... , eskuin, ezker, ... bira, oso ondo...). Hala ere, aurrerapauso txiki bat eman bada ere, gaztelera da nagusi baita jarri zuten musikan ere.

Gazteei dagokienez, oso positibotzat jotzen dugu, aurtan, Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuak Donostiako Aste Nagusian aisialdiaren eremuan gazteentzat erakargarri diren ekimenak areagotzeko Kultur Kabia enpresarekin abian jarri zuen ekimena. Lehen aipatutako, "**Festan Blai!**" ekimena alegia. Ekimen honen helburua, Kursaleko DJ emanaldien testuingurupen, gazteen artean euskararekiko motibazioa sustatzea zen zeharkako eta modu ludiko baten bidez eta ekimenak oso harrera ona izan zuela uste du BAGERAK gazteen parte hartzeari begira. Bide berean, uste dugu, gune horretan aritzen diren dj-ekin lanketa berezia egin beharko litzatekeela eta Dj euskaldunak izatea proposatzen dugu eta horrelako ekimenen parte izatea gonbidatuz.

Besteak atalean, gainontzeko ekitaldiak sartu ditugu. Behatutakoen artean Donostia Kulturaren ardurakoak direnak hizkuntza-gabeak izan dira gehienak (8), ondoren ele bitan izandakoak (4), jarraian gaztelera-koak (2) eta azkenik euskarazkoak (1).

Gaztelera egiten ziren bi jarduerak **V. Zinema eta Itsas Astearen** barruan izan zen. Bertan 4 filmetatik 2 gaztelera, 1 ele bitan eta beste 1 euskaraz izan ziren. Bestetik, **Entsaladilla lehiaketan**, parte hartu zuten 11 taldeen izenetatik bakarra izan zen euskaraz. Aurkezpenen bi hizkuntzak erabili baziren ere, gaztelera gailendu zen baita epaimahaikideei egiten zizkien galderetan. Musika aldiz gehien bat euskaraz izan zen.

- **Prentsaurrekoak**

Prentsaurrekoetan euskararen erabilera bermatu da, euskarak lehentasuna izanik.

5.2. BESTE ELKARTEEK ANTOLATUTAKOAK

5.2.1. Ahozko erabileraren azterketa

Aurtan beste elkarteek antolatutako 42 ekintza behatu ditugu. Ekitaldi gehienek ez dute aurkezpenik izan (%42,86) eta izan dutenen artean gehienak euskaraz izan dira (%30,95). Besteak bi hizkuntzatan izan dira (%14,29) eta azkenik gaztelera (%11,90).

Aurkezpenik izan ez duten ekitaldiak alde batera utzita, beste elkarteek antolatutako ekitaldietan, aurkezpenak honela izan dira:

- **euskaraz %54,17**
- bi hizkuntzatan. %25
- gaztelera %20,83

Aurreko urteetako datuekin alderatuta, gaztelera-ko aurkezpenak behera egin dute nabarmen eta euskarazkoak aldiz igo egin dira eta bi hizkuntzetan aurkeztutakoak portzentaje txikiagoan bada ere, igo egin dira ere.

Ekintzen garapenari dagokionez, hizkuntzarik gabeko ekintzak gailendu dira nabarmen %95,24an. Hala ere, nahiz eta ekintza berak hizkuntzarik ez izan, esatari eta bertako antolatzaileek gaztelera hutsez hitz egiten zuten ekintza askotan, %40,48an hain zuzen.

Euskaraz edo euskara gailendu den portzentajea %35,71 izan da, ele bitan %21,43 eta hizkuntzarik erabili ez den ekimen bakarra izan da (%2,38).

Hizkuntza era garrantzitsu batean erabili ez duten ekitaldiak kenduta ondoko datu hauek neurtu ditugu ekintzen hizkuntz erabilerari erreparatuz gero:

- gaztelera..... %41,46
- **euskaraz.....%36,59**
- bi hizkuntzatan %21,95

Zaldi lasterketetan gaztelera izan da erabili den hizkuntza bakarra eta beste ekintza batzuetan, berriz, nahiz eta euskara zerbait erabili gaztelera gailendu da nabarmen, hala nola, **waterpoloan, boleibolean, Street Basketen, merenge gerran, aerobicean** eta **eskriman**.


Hala ere, iazko datuekin alderatuta euskararen erabilera igo egin da (%20,69tik %36,59ra) eta gaztelera egindako ekimenak jaitsi (%51,72tik %41,46era).

ORO HAR


BAGERAK haurren ekintzei garrantzi berezia eman izan die beti eta horregatik azken urteetan izan duten bilakaera aztertu dugu. Aurten, euskaraz egin diren ekintzak jaitsi dira eta bi hizkuntzetan egin direnak nabarmen igo. Gaztelerazkoek aldiz, jaisten jarraitzen dute urtetik urtera. BAGERAK euskarazko ekimenak gora egin behar dutela uste du eta, txostenean aipatu bezala, haurren ekintzetan parte hartzen duten begiraleek euskararen sustatzaile izan beharko luketela. Horretarako baliabideak eskaini behar zaizkie begiraleei. Adin horietan, aisialdian, euskara sustatzeak duen garrantzia nabarmena da. Gainera, euskara normalizatzeko plan guztietan berebiziko garrantzia du, baita Donostiako Plan Orokorrean ere. Hau horrela, **Zurriola Kultur irekian** aritzen diren begirale guztiak euskaraz jakin beharko luketela uste du (3 begiraletik batek ez baitaki euskaraz. Bera bigarren maila batean dagoela dakigun arren, haurrekin dagoen momentutik euskaraz jakin beharko luke).

Bestetik, aurten ekimen batzuetan, iaz gaztelera hutsez izan zirenak, euskaraz zertxobait egin badute ere, ez dela nahikoa uste dugu, hala nola, **haur eskriman** edo haurrentzako **aerobicean**.

Azkenik, oso larritzat jotzen dugu Saguesen jarritako **haur parkean** bertan zeudenak gaztelera hutsez aritzea etengabe.




Aste Nagusian zehar egin diren ekitaldi guztiak kontuan hartuta aurkezpena izan denean gehienak bi edo hiru hizkuntzatan izan dira (%58,97), euskaraz egin diren aurkezpenek gora egin dute (% 20,59tik %28,21era) eta gaztelera egin diren aurkezpenak aldiz, jaitsi (%22,55etik %12,82ra). Azken urteetako emaitzak azaltzen dira jarraian:




Aurkezpenek azken urteetan izandako bilakaerari erreparatzen badiogu, ikusi ahal dugu aurkezpen elebidunak (edo hiru eledunak) eta euskarazkoak aurten igo egin direla. Gaztelera egin diren aurkezpenen kopurua aldiz, jaitsi dira. Aurten euskarazko aurkezpenak gaztelera egin diren aurkezpenen gainetik dauden lehenengo aldia da.

Bestalde, ekintzen hizkuntza garapenari erreparatuz gero, euskara erabili den ekintzen kopurua nabarmen igo da aurten ere bai gaztelera egin diren ekintzen kopurua gaitzertzeraino (%47,37). Bi hizkuntzak erabili dituzten ekintzen kopurua ere igo egin da (%1,30etik %5,26ra). Gaztelera hutsez edo maila handi batean gaztelera erabili duten ekimenak jaitsi egin dira (%40,26tik %31,58ra) eta beste hizkuntza bat erabili diren ekintzen kopurua %18,18tik %15,79ra. Azken urteetako emaitzak ditugu jarraian:



Ekintzen hizkuntza erabileraren joera aldatu da nabarmen. Lehenengo aldia da, aipatu dugun bezala euskarazko ekintzak gaztelerazko ekintzen goitik dagoela eta hori poztekoa da. Bestalde, bieletan egin diren ekitaldiek ere gora egin dute.

Ekintzen aurkezpena, ekintza bera eta begiraleak (arbitro, laguntzaile, esatari, ...) zein hizkuntza erabili duten kontuan hartuta, honakoak dira oro har behatutako ekimenetan ateratako portzentajeak aurreko urteekin alderatuta:



Euskararen erabilera normalizatzeko urrats handiak egin dira aurten ere. Euskarazko ekimenek gora egiten jarraitzen dute eta gaztelerazko ekimenak berriz, jaisten. Easo plazako dantzaldietan eta Bulebarreko gauetan adibidez, euskarazko lau talde izan dira aurten, bi dantzaldi gune bakoitzean (orain arte dantzaldi guztiak gazteleraz izaten ziren gune horietan). Gazteen kasuan, "Festan blai!" ekimena oso egokia izan dela uste dugu eta gazteen artean euskara sustatzeko zeharkako horrelako ekimenak egiten jarraitzera animatu nahi dugu Donostiako Udala. Bestetik, prentsarako material idatzian, aipatu bezala, aurreko urteetan zeuden akatsak (erdarakadak, gaizki osatutako esaldiak, akats gramatikalak...) zuzendu egin dira.

Hala ere, oraindik hutsuneak daude, batez ere, Donostia kulturatik kanpo antolatzen diren ekitaldietan (waterpoloa, merenge gerra, boleibola, haurrentzako aerobica, Street Basket,...). Aipatu behar dugu ere, Vinuesa plazan Gabiltzak antolatutako tailer gehienetan euskara gailendu dela baina birziklatzeko materialez egindako sorkuntza tailerrean, egitarauan euskaraz jartzen bazuen ere, gazteleraz izan zela.

Donostia Kulturak antolatutako ekimenetan berriz, hauek izan dira hutsune handienak behatutako ekimenetan: Zaldi lasterketetan, haur eskriman, Fortunarekin batera antolatutako futbol 5 lehiaketan, Urban 13 egindako graffiti tailerrean eta Saguesen egindako haur parkean aritzen ziren begiraleen hizkuntza erabilera.

BAGERA Elkarteak balorazio positiboa egiten du. Aurrerapausoak nabari dira eta espero dugu egonkortzea eta dauden hutsuneak betetzen joateko lanean jarraitzea. Bide horretan bidelagun izango gaituzue.